

Memoriarik gabeko teknologia



Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

Euskal Herrian azken urteotan garrantzi berezia eman diogu iragandako gerretan desagertutako pertsonen aztarnak bilatzeari. Helburu asko daude ekintza horren atzean, hala nola senideen ezinegona samurtzea, gertatutakoak argitzea eta, jakina, etorkizuneko belaunaldiari gertaeren transmisioa egitea. Gertakizunen ingurukoak memoria kolektiboan txertatu aurretik eta herri horren geroaren parte izan aurretik, egin beharreko hurrengo fasea osatzen du aurkitutako gorpuzkinen azterketak.

Hildako gure senideen bilaketarako sistematikaren antzekoa alor askotan gertatzen da, ia automatikoki. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ezinezkoa litzateke gertakizun historikoen analisia eta diseinazioa egingo ez balitz; beste gauza bat da analisia egiteko era, askotan gaurko prismatik aztertzen hasten baikara, gertaerek testuinguru zehatza izan zutela ahaztuta, batzuetan interesatuki ahaztuta ere.

Ongi egindakoak indartzen eta berritzen laguntzen digu memoriak, eta gaizki egindakoak baztertzen. Itsasoari terrenoak ostu izan dizkiogu, eta batzuetan ongi joan zaigu, baina besteetan ez; mendietan zuhaitzak landatu izan ditugu, eta batzuetan ekosistemak indartu badiugu ere, besteetan suteak bultzatu ditugu; joan den mendearen bigarren erdian lantegi pila bat eraiki genituen gure hiri eta herrietan, eta hala eskulana sustatu genuen, baina gure herrie-

tako eta ibaietako kutsadura izugarri handitu genuen; errepideak, mendi pistak eta garraio-bideak ugaritu ditugunez, jendearen mugikortasuna erraztu dugu, baina berotegi efektuan eragin nabarmena duen karbono dioxidoaren emisioa neurrigabe hazi da. Ikusten denez, ia denak du bere alderdi ona eta ez hain ona. Horien analisiak etorkizun hobea eraikitzen lagundu behar digu.

Memoria etorkizunaren zati den neurrian, etorkizuna geureagoa dela sentitzeko balio digu, eta horrek aurrera eraman beharreko ekintzak baldintzatuko ditu. Memoriarik ezean etorkizuna ezezagunagoa da, eta kanpo faktoreek marrazten dute joko zelaia, adibidez, globalizazioak edo lehiakortasunak. Azken kasuan, iragana, eraitsi beharreko eraikuntza zaharra da, eta teknokratentz hitzek pisu handia izaten dute.

Horixe da azken joera, nire ustez, munduan barrena indartzen ari dena, baita Euskal Herrian ere. Gurean adibidez, inoiz baino handiagoa da manufaktura-industriaren eta kulturaren arlotik bultzatu nahi den etena. Errazegi jotzen dugu lan faraonikoetara, etorkizun hutsalaren izenean. Agian, memoriak lagunduko digu Pasaiaiko kanpo portuaren edota Hondarribiko aireportuko pista luzatzearen inguruko ideiei beste irtenbide bat ematen. Agian, memoriak adieraziko die geure seme-alabei zer egin genuen gaizki AHTrekin eta Zubietako errauskailuarekin. ■

Ongi etorri gure zirkura



Miren Artetxe

BERTSOLARIA

Begoña Huartek eta Mikel Zuloagak aske geratu bezain laster aldarrikatu dute beraiei egotzi zaien protagonismoa errefuxiatuei dagokiela, berez. Ozta-ozta jakin dugu atxilotu zituztenean furgonetan zekartzaten zortzi errefuxiatuak ere aske daudela. Errefuxiatuak. Zenbat ote dira? Milioi bat? Hogei milioi? Ehun? Non daude? Alegia, non daude "orain"? Ez dute ize-nik, ez aurpegiarik, ez istoriorik. Kontzeptua bera ere definitu beharrekoa da. Nor da eta nor ez da errefuxiatua? Ongi-etorri, "nor"?

Eta otu zaizu honakoa idatz zenezakeela: "Zer pentsatuko dute errefuxiatuen gaiari buruz ongi-etorri handirik gabe aspaldi auzotar

bilakatutako Aminak, Idrissak eta Alejandrak?". Baina, onartu beharra duzu: zuk auzoan izen eta guzti ezagutzen dituzun guztiak dira zuriak eta hemen sortuak. Aipatu izenak ez dira egiazkoak kasualitatez ez bada, eta susmoa duzu izenen erabilera hori ez dela politikoki bizidetzakoa baliabide literario gisa ere. Idatzi egin dituzu, alabaina.

Gaiari buruzko argialdi bila kalera atera eta "Bikote siriarra pisu bila" irakurri duzu bebarruko horman itsatsita. Eta zure burua harrapatu duzu galdezka ea benetan siriarrak ote diren, eta ez baldin badira, ea gezur hori zilegi ote den.

Ongi etorri gure zirkura. ■